

KANALAK:

Gure produktua bitartekaria izatea da. Azkenean, guk lotzen ditugu pisua alokatzen duena eta pisua edo pisukidea bilatzen ari dena. Gure produktua publizitate bidez promozionatuko dugu, hau da, kartelak unibertsitateetan eta ikastetxeetan jarriz eta sare sozialen bidez. Gainera, unibertsitateko ikasleei eta Batxi 2ko ikasleei txarla desberdinak emango dizkiegu gure web-gunearen berri emanaz. Honela kanala ere areagotu egingo dugu.

Erabiliko den tresna oinarrizkoa eta nagusia web-gunea izango da. Bezeroek edozein zalantza izaten badute, web-gunean informazio gehigarria eta gurekin kontaktatzeko bidea aurkituko dute. Are gehiago, bertatik alokatuko dituzte pisuak. Gainera, uste dugu, bulegoa izatea komeniko zela behin pisua alokatu ondoren egin behar diren paperen eta bestelakoen inguruan aritzeko, izan ere, gai hauen inguruan hitz egiteko erosoagoa da bezeroarekin aurrez aurre egotea. Horretaz gain, gure arteko harremana estutzeko eta konfiantza lortzeko erabilgarria izango zen bulegoa izatea.